

Bilbo handia ala Bilbo munstroa?

Oraindik ere bada Bilborekin harroturik bizi denik. Hala ere, garai bateko euforiarik nekez ikusten da orain. Gutxi berru hola-koak «rara avis» bilakatuko dira. Sarri entzuten da orain Bilbo zikina dela, zaratatsua dela, itsusia dela, arnasa hartzerik ere ez dagoela han. Eta jendez beterik dagoela.

Jendez beterik, aserik, bai. Eta ez da gaitzik tipiena hau. Bizkaiko jendetzaren %79 Bilbo Handian bizi da. Bizkaiko edozein eskualdetan baino 10 aldiz gehiago, Bizkaiko gainerako lurralde guztietan baino 4 bider gehiago. Kontzentrazio ikaragarria da, lur eremuz %16,7 besterik ez dela kontuan edukiz. Horrela, beraz, Bizkaiaaren %16,7 lur-eremuan, jendetzaren %79 bizi da. Hori absurdua, hori!

Zein tamainako munstrokeria den jabetzeko, beste datu mota bat. Populazioz bigarren datorren eskualdea Durangaldea da. Baina kasu!, %7,5ekin bakarrik. Askoz guttiagorekin dator hirugarrena, Busturia eskualdea (Gernika-Bermeo): %4rekin.

Lur-eraketari begira, badago bai zer aldaturik eta zer zuzendurik. Jakin egin behar, ordea, sistema berarekin deus aldatzerik dagoenentz. Badirudi, bestalde, jendea ez dela honetaz ikaragarri argetatzen eta urduritzen. Bizitzaren kalitate arazoak noizko? ■ *Joan Larrinaga.*

Batasunaren erasoak eta prentsa

Nork ez ditu irakurri azken hilabeteotan euskara batuaren eta Euskaltzaindiaren aurkako erasoak? Euskaltzaindiaren VIII Biltzarre irekia zela eta, ahaztuta ere bagenituen eta hilda nahi genituzkeen salakuntzak eta erasoak berriro dira. Tesi originalik ez, batabestearen kopiaketa, eta pertsona konkretuei atakeak.

Horrek denak tristetu egin nau. Baina beste zerbaitek harritu. Zeinek esango, baina, egunkarietako erasorik gehienak prentsa